

FESTIBAS – 2024ko urriaren 12a, larunbata

Banden Jaialdia izango dugu gurean, egun bat eskaintzeko Basauriko musika bandei eta Basozelai Gizarte Etxeko entsegu-geletako erabiltzaileei.

Basauriko Udalak antolatzen du «Festibas». ZirtZartek, Basauriko Udalaren gazte zerbitzuak, izen-emateak jasoko ditu 2024ko ekainaren 5etik uztailaren 10era bitartean. Antolatzaileek, banda batzuk hautatuko dituzte, 2024ko urriaren 12n, larunbata, Basaurin zuzenean jotzeko.

- Baldintzak:

- Parte hartzen duten banden kideetako bat, gutxienez, Basaurin bizitzea; bestela, beharrezkoa izango da aurreko hiru ikasturteetan edo aurreko (2021, 2022, 2023 edo 2024an) entseguak egin izana Basozelai Gizarte Etxeko lokaletan.
- Taldeko kideak 16 urtetik gorakoak izatea.
- Musika estilo guztiak onartuko dira.

- Izena ematea:

Jaialdian parte hartu nahi duten taldeek izena emateko orria bete beharko dute (ZirtZart zerbitzuaren webgunean eta Gazteen Informazio Bulegoan egongo da eskuragarri; harremanetarako telefono zenbakia: 944 666 400), eta uztailaren 10a baino lehenago bidali beharko dute zirtzart@basauri.eus helbidera, bandaren deskribapenarekin (doc, docx edo pdf formatuan) eta taldeko kideetako baten NANaren fotokopiarekin edo errolda-agiriarekin batera, beraren jatorria egiaztatzeko (bandak ez badu entsegurik egin 2021etik hona Gizarte Etxeko lokaletan).

Izena emateko orria eta goian adierazitako dokumentuak, bidali posta bidez ZirtZart Gazte Bulegora edo entregatu gure bulegoan bertan. Jendaurreko ordutegia: 09:00-14:00 astearte, asteazken eta ostiraletan; 16:00-19:30 astelehenetik ostegunera. Helbidea: Basozelai Gizarte Etxea – Basozelai 11 – 48970 Basauri (Bizkaia).

- Bandak hautatzea:

Izena eman duten banda guztietatik antolatzaileek hautaketa egingo dute, urriaren 12an zuzenean Basaurin jotzeko, Mojarparte plazan (Benta). Zenbat bandak parte hartuko duten antolatzaileek aldatu ahalko dute euren irizpideen arabera.

- Argibide gehiago, hemen:

Basauriko Udala – ZirtZart Basauri Gazte Bulegoa

- Tel.: 944 666 400
- zirtzart@basauri.eus
- <http://zirtzart.basauri.eus/>

Antolatzaileak:

